



*Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria*

*El Lehendakari del Gobierno Vasco*

**36/2019 DEKRETUA, azaroaren 26koa, lehendakariarena, Euskadiko memoria historiko eta demokratikoari buruzko lege-aurreproiektua egiteko prozedura hasteko agintzen duena.**

---

Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak, 2018ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, 10/2018 legez besteko proposamena onartu zuen, memoria historikoaren politika publikoek etorkizunera begira dituzten tresnei buruzkoa. Erabaki horretan, Legebiltzarrak txosten bat egiteko eskatu zion “Gogora” Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuari, memoria historikoaren politika publikoek izan ditzaketen beharrak identifikatzeko, orain arte egindakoan oinarrituta.

2018ko azaroaren 29an, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak "Euskadiko Memoria Historikoaren politika publikoei buruzko txostena" bidali zion Legebiltzarrari. Txosten horretan, gomendatzen da arau-esparru berri bat sortzea, memoria historikoaren kudeaketa juridikoki garatuko duena eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko Legea osatuko duena, erakunde horren esku uzten baita memoriari buruzko Euskadiko politiken sustapen artikulatu eta integrala.

Lege-aurreproiektu honek jarraipena ematen dio hasitako bideari, orain arte garatutako jarduketan bolumena arau bidez finkatu, sustatu eta zabaltzen baitu. Era berean, koherentzia, sakontasuna eta bultzada instituzionala eman nahi dizkie egia, justizia eta erreparazioa lortzen lagundu dezaketen politika publikoei —ez errepikatzeak barne—, 1936tik 1978ra bitartean gertatu ziren giza eskubideen urraketa larriei dagokienez.

Erregulazioaren xedeak lege-maila formala duen tresna juridiko bat eskatzen du, eta, beraz, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen bidez xedapen orokorrak egiteko arautzen den prozedura abiarazi behar da.

Dekretu honetan jasotako prozeduraren antolamenduak, hasiera-hasieratik, araua egitea egokia dela adieraziko duen erabaki formal bat eskatzen du. Izan ere, formalitate hutsetik harago, garrantzi juridiko eta politiko handia duen egintza bat da, eta egingo den araua beharrezko eta bideragarri den ala ez zehaztuko duen gogoeta izan behar du oinarri.

Horregatik guztiagatik, eta oinarri hartuta abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5.1 artikulua araberak hasteko aginduak izan behar duen edukia, hau

**XEDATZEN DUT:**

**Lehena.- Dekretuaren xedea eta prozedura has dadila agintzeko eskumena.**

1.- Dekretu honen xedea da Euskadiko memoria historiko eta demokratikoari buruzko lege-aurreproiektua egiteko prozedura hasteko agintzea.



2.- Prozedura has dadin agintzeko eskumenari dagokionez, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4.1 artikulua ezartzen du xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela prozedura.

Kasu honetan, hasteko agindua lehendakariaren dekretu bidez ematen da, hura baita Lehendakariaren titularra.

Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak –zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen diren– 4.1. artikuluko k) eta l) letretan ezarritakoaren arabera, Lehendakariari esleitzen zaio “giza eskubideak eta bizikidetzaren sustatzea” eta “biktimen eta memoriaren politikak zuzendu eta koordinatzea”.

### **Bigarrena.- Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Lege-aurreproiektu hau aurreko bi lege-xedapenek abiarazitako bidearen jarraipena da, lege-maila formala duen tresna juridiko baten bidez: ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, *Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa*, eta azaroaren 27ko 4/2014 Legea, *Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (Gogora) sortzekoa*.

### **Hirugarrena.- Lege-aurreproiektuaren xedea eta helburua.**

Sustatzen ari garen lege-aurreproiektuaren xedea eta helburua da Euskadiko memoria historiko eta demokratikorako politika publikoak arautzea, gerra zibilean eta diktaduran arrazoi politiko, ideologiko edo erlijiosoengatik jazarpena edo indarkeria jasan zutenen erreparazio moral eta oroimen pertsonal eta familiarren berreskurapena sustatzeko, eta balio eta printzipio demokratikoak sustatzeko, gerra zibila, diktadura frankista eta demokraziarako trantsizioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua indarrean sartu arte, barne hartzen dituen garaiko gertaerak eta inguruabarrak hobeto ezagutzeko.

### **Laugarrena.- Antolamendu juridikoan izango duen eragina.**

Lege-aurreproiektuak indarreko arau-esparrua errespetatzen du, eta arau-xedapen berria da.

Eusko Jaurlaritzak legea betearazteko eta garatzeko egoki diren arauak eman ahal izango ditu.

### **Bosgarrena.- Aurrekontuan izango duen eragina.**

Aurreikustekoa da arau berriaren ondorioz gastu publikoa handituko dela. Hori dela eta, ekimenaren eragin ekonomikoa aztertzen duen memoria ekonomikoa aurkeztu beharko da espedientean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz.



## **Seigarrena.- Egin beharreko izapideak eta txostenak.**

Lege-aurreproiektua egiteko prozedura hasteko agintzen duen dekretu hau onartu aurretik, aurreiazko kontsulta publikoa egin da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan arautzen den moduan.

Dekretu hau onartu ondoren, izapide eta txosten hauek bete beharko dira:

1.- Aurreproiektua landu aurretik, genero-eraginaren aurreazko ebaluazioa egingo da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera eta genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzeko 2012ko abuztuaren 21eko Gobernu Kontseiluan onartutako jarraibideetatik lehenengoari dagokionez.

2.- Euskadiko memoria historiko eta demokratikoari buruzko legearen aurreproiektuaren testua idazteko, aintzat hartuko da, alde batetik, dekretu honen edukia, kontuan hartuz bete nahi diren helburuei hobekien egokituko zaizkien aukerak, eta, bestetik, ezarri nahi den araudia egokia eta legezkoa izango dela bermatzeko egokituz joko diren kontsulten emaitza.

3.- Lege-aurreproiektua idatzi ondoren, lehendakariari aurkeztuko zaio, alde aurretik onar dezan. Halaber, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (ekainaren 2ko 8/2016 Legeak aldatu zuen lege hori), lege-aurreproiektua egiteko hasierako fasean, xedapenaren testua Eusko Legebiltzarrerara bidaliko da.

4.- Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zerbitzu juridikoak txosten juridiko bat egingo du, aurreproiektuaren oinarri objektiboa aztertzeke, edukia legearekin bat eta zuzenbidearekin bat datorren ikusteko eta araugintzako teknikaren jarraibideak bete diren egiaztatzeke.

5.- Lege-aurreproiektuak entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea bete beharko du, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

6.- Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, proiektua Eusko Jaurlaritzaren sailletara bidaliko da, haiek parte har dezaten eta haiei kontsulta egin ahal izateke.

7.- Euskadiko Udalen Elkarteari (EUDEL) parte hartzeke eta kontsultatzeko izapidea egitea beharrezkotzat jotzen da, lege-aurreproiektuaren erregulazioak Euskal Autonomia Erkidegoko udalen eskumenei eragiten baitie.

8.- Nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak eskatuko dira, izapide hori arautzen duten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, arau-xedapenek prestatzeko gaur egun indarrean dagoen prozeduraren arabera. Besteak beste, txosten eta irizpen hauek bildu behar dira:

a) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabilerean normalizazioan duten eraginari buruzkoa eta hizkuntza-gaietan indarrean dagoen araudiarekiko egokitasuna baloratzeari buruzkoa (233/2012 Dekretua, azaroaren 6koa,



Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena; 2. artikulua).

b) Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Enpresetan duen eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

d) Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 91. artikuluan xedatutakoaren babesean, udalerrien eskumen propioei berariaz eragiten dien arau-proiektua baita.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko erabakian xedatutakoarekin bat etorriz, txostena Tokiko Gobernuen Batzordean bertan eskatuko da, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak jasoko du, ordu arte izapidetutako espedientearen kopiarekin batera eta izapidea hobetu ahal izateko beharrezkoa den ekonomia- eta eskumen-alderdiei buruzko dokumentazioarekin batera.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuaren 4. artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25. artikuluekin lotuta.

f) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 3.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

g) Eusko Legebiltzarrerara bidaltzea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora bidaltzen den dokumentazio bera, Jaurkituari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.2 artikuluan xedatutakoa betez, legebiltzar-taldeek horren berri izan dezaten.

9.- Ez dago Europar Batasunean egin beharreko izapiderik.

10.- Bosgarren apartatuan jasotako memoria ekonomikoa egingo da, eta bertan, ezartzen diren administrazio-kargen azterketa jasoko da, halakorik badago.

11.- Espedientearen sartuko dira, aurreproiektua egiten hasteko dekretu honetaz gain: Dekretuari dagokion dokumentazio guztia, bideratutako azterlanak eta kontsultak, eta prozedura osoari buruzko memoria laburra, abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 10.2 artikuluan ezarritako edukiarekin. Hartara, Gobernu Kontseiluak, azkenik, lege-aurreproiektua onartuko du, aipatutako legeko 12. artikuluan ezarritako baldintzetan.

### **Zazpigarrena.- Dekretua Legesarea elkarlanerako gunean zabaltzea eta Tramitagune erabiltzea**

Dekretu hau elkarlanerako Legesarea gunean argitaratuko da, eta prozeduraren izapideak tramitazio elektronikorako Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez egingo



dira; hori guztia Gobernu Kontseiluaren erabaki hauekin bat etorriz: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituena, eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren prozedura jakin batzuk elektronikoki izapidetzeko jarraibideak onartzen dituena.

**Zortzigarrena.- Legegunean publiko egitea.**

Legegunean argitaratuko dira egiten den lege-aurreproiektua eta interesgarritzat jotzen diren txosten eta dokumentu juridiko garrantzitsuak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

**Bederatzigarrena.- Idazketa elebiduna.**

Egin beharreko arauaren idazketa elebidunaren metodoari dagokionez, adierazi behar da IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzuliko duela testua, arau-xedapen orokorrak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren Erabiltzailearen Eskuliburuan aurreikusten den bezala.

**Bederatzigarrena.- Izapideak egiteko organo eskuduna.**

Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua arduratuko da aipatutako prozedura izapidetzeaz.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 26an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA